

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

2019an Gasteizko udalerrian merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programa ebatzea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4. eta 45.1 artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak 2018ko urriaren 16an emandako ebazpena, zeinaren bidez Gasteizko udalerrian 2019. urtean merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen alorreko enpresa txikiak ezarri nahiz modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programa ebatzi baitzuen. Hauxe da ebazpenaren edukia:

I. Tokiko Gobernu Batzarraren 2018ko abenduaren 28ko erabakiz onetsi ziren Gasteizko Udalaren diru-laguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorrak 2019. urterako, eta horien 2. atalean zehazten dira aurreikusitako eremuak eta diru-laguntzen ildoak; hain zuzen ere, 23. ildoak da merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen alorreko enpresa txikiak ezarri nahiz modernizatzeko laguntzei dagokiena (2019ko urtarrilaren 13ko ALHAO, 19.zenbakia).

II. Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 29an egindako bilkuran onetsi zituen Gasteizko udalerrian merkataritzaren eta zerbitzuen alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoaren udal programaren berriazko oinarriak eta deialdi publikoa — 2019ko apirilaren 24ko ALHAO, 48 zk. —, laguntzak emateko prozedura gisa norgehiagoka baliatuta, 200.000,00 euroko zuzkidurarekin, 2019ko ekitaldira luzatutako udal aurrekontuko 0822.4314.489.64 partidaren kontura.

III. Eskabideak aurkezteko epea 2019ko ekainaren 6an bukatu zelarik, Merkataritza Zerbitzuko teknikariek idazkia plazaratu zuten 2019ko urriaren 10ean, zeinean jakinarazten zuten epearen barruan berrogeita hamar (50) eskabide jaso zirela, eskabide horietako hamazazpik (17) ez zituztela betetzen oinarrietan ezarritako betebeharrak eta batek (1) ukoa aurkeztu zuela.

Eskabide horiek aztertu ondoren, Hautatze eta Jarraipen Batzordeak 2019ko urriaren 11n egindako bilkuran analizatu eta eztabaidatu ziren; berrogeita bi (42) eskabidek baldintzak betetzen zituztela egiaztatu eta aurkeztutako proiektuak balioetsi eta lehenetsi zirelarik, deialdiaren ebazpen-proposamen hau aurkeztu zitzaion Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari: aurkeztutako borondatezko ukoa onartzea, hamazazpi (17) eskabide ukatzea baldintzak ez betetzeagatik, eta hogeita zortzi (28) dirulaguntza ematea; horien guztien baturak diru-zuzkidura osoa (200.000,00 euro) agortzen du. Orobat erabaki zen betebeharrak beteta ere aurrekontu-zuzkidura agortu izanagatik diru-laguntzarik gabe geratu direnekin itzarote-zerrenda eratzea.

Deialdi honetan ezarritako prozedurari jarraiki, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariari dagokio eskabideak ebatzea (maiatzeko hauteskundeon ondoren, sail horren izena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saila izatera pasa da, alkatearen 2019ko ekainaren 21eko dekretua tarteko).

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, Hautatze eta Jarraipen Batzordeak egindako proposamena aintzat harturik eta eskumenak eskuordetzeko 2019ko martxoaren 29ko erabakia dela medio, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau:

Ebatzi du

Lehena. Jarraian adierazten denak aurkeztutako borondatezko uko egitea onartzea:

Zenbakia	N.A.N / I.F.Z.	Arrazoa
1	15844197A	Borondatez uko egitea

Bigarrena. Deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak ez dituztela betetzen egiaztatu ondoren, honako hauei 2019an Gasteizko udalerrian merkataritzaren eta zerbitzuen alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko udal programaren barruan eskatutako laguntza ekonomikoa ukatzea:

Zenbakia	N.A.N. / I.F.Z.	Bete ez den oinarria	Ez emateko arrazoiak
1	X5969989V	4	Gutxienerako inbertsiorik ez.
2	A01021500	3.6	Ez du merkataritza-lokalaren kokapenaren baldintza betetzen
3	72825829D	4	Gutxienerako inbertsiorik ez.
4	B01260686	3.7	Ez du merkataritza-lokalaren kokapenaren baldintza betetzen.
5	16029278A	4	Gutxienerako inbertsiorik ez.
6	16291026B	16	Ez ditu eskabideko akatsak zuzendu
7	B01313154	3.4	Ez ditu EJZri dagozkion baldintzak betetzen
8	76727399C	4	Gutxienerako inbertsiorik ez.
9	B01571926	4	Gutxienerako inbertsiorik ez.
10	44683507G	4	Gutxienerako inbertsiorik ez.
11	B01334721	4	Gutxienerako inbertsiorik ez.
12	11910382Q	4	Gutxienerako inbertsiorik ez.
13	B20864211	3.4	Ez ditu EJZri dagozkion baldintzak betetzen.
14	58016717E	4	Gutxienerako inbertsiorik ez.
15	B01542380	4	Gutxienerako inbertsiorik ez.
16	B01395904	4	Gutxienerako inbertsiorik ez.
17	16256707P	3.4	Ez ditu EJZri dagozkion baldintzak betetzen.
Guztira 17 eskabide ukatuta			

Hirugarrena. Deialdiko betebeharrak betetzen direla egiaztatu eta aurkeztutako eskabideak balioetsi eta lehenetsun-hurrenkera ezarri ondoren (3., 4. eta 10. oinarriak), Gasteizko udalerrian merkataritzaren eta zerbitzuen alorreko enpresa txikiak ezarri nahiz modernizatzeko laguntza hauek ematea, adierazitako kopuruetan, zeinek baitute diru-zuzkidura osoa agortzen:

Zenbakia	N.A.N. / I.F.Z.	Lortutako puntuazioa	Dirulaguntza teorikoa	Aurrekontu erabilgarria	Proposatutako dirulaguntza
1	B01005941	79,50	13.630,69 euro	200.000,00 euro	13.630,69 euro
2	16262910R	75,00	4.149,90 euro	186.369,31 euro	4.149,90 euro
3	J01318989	73,00	8.214,20 euro	182.219,41 euro	8.214,20 euro
4	16290177J	70,00	2.658,20 euro	174.005,21 euro	2.658,20 euro
5	J01571611	70,00	7.705,80 euro	171.347,01 euro	7.705,80 euro
6	72746505N	68,50	13.035,60 euro	163.641,21 euro	13.035,60 euro
7	B01567817	68,00	15.096,71 euro	150.605,61 euro	15.096,71 euro
8	16287493C	67,50	7.533,00 euro	135.508,90 euro	7.533,00 euro
9	B01439876	64,00	6.633,10 euro	127.975,90 euro	6.633,10 euro
10	B01570902	63,50	20.000,00 euro	121.342,80 euro	20.000,00 euro
11	J01379908	61,00	1.161,24 euro	101.342,80 euro	1.161,24 euro
12	B01515212	59,00	14.537,75 euro	100.181,56 euro	14.537,75 euro
13	B01558030	54,50	6.506,42 euro	85.643,81 euro	6.506,42 euro
14	B01574532	54,00	2.348,55 euro	79.137,39 euro	2.348,55 euro
15	14594569B	50,00	5.894,73 euro	76.788,84 euro	5.894,73 euro
16	B01501097	49,50	5.085,11 euro	70.894,11 euro	5.085,11 euro
17	B01362748	48,25	9.292,74 euro	65.809,00 euro	9.292,74 euro
18	B01570712	48,00	3.242,46 euro	56.516,26 euro	3.242,46 euro
19	J01541242	45,00	4.347,91 euro	53.273,80 euro	4.347,91 euro
20	J01179951	45,00	8.255,00 euro	48.925,89 euro	8.255,00 euro
21	B01367325	42,25	5.155,40 euro	40.670,89 euro	5.155,40 euro
22	18596059F	40,00	7.871,22 euro	35.515,49 euro	7.871,22 euro
23	16279163Q	40,00	8.428,50 euro	27.644,27 euro	8.428,50 euro
24	J01346980	39,50	5.034,38 euro	19.215,77 euro	5.034,38 euro
25	16584812H	35,00	6.888,00 euro	14.181,39 euro	6.888,00 euro
26	B86324589	34,50	1.986,00 euro	7.293,39 euro	1.986,00 euro
27	18592721G	33,50	4.660,25 euro	5.307,39 euro	4.660,25 euro
28	28952652E	32,50	4.446,77 euro	647,14 euro	647,14 euro
28 eskabide onartuta				Guztira	200.000,00 euro

Laugarrena. Laguntza horien zenbatekoa (200.000,00 euro) 2019rako luzatutako udal aurrekontuko 0822.4314.489.64 partidaren kontura jasota uztea (6. oinarria), eta horiek ordaintzea onestea.

Bosgarrena. Udalaren Merkataritza Zerbitzuko teknikariak izendatzea enpresa-proiektu horien jarraipenaren arduradun.

Seigarrena. Laguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahal izango dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago, jasotako diru-kopurua itzultzeko eskatuko zaie.

Zazpigarrena. Deialdiko zuzkidura ekonomikoa agortuta betebeharrak betetzen dituzten hainbat eskabide laguntzarik gabe geratu denez, itxarote-zerrenda hau sortzea onestea, Ekonomia Sustapenaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak 2019an ekonomia-jarduera eta enplegua sustatzeko dituen beste laguntza deialdietan saldoa soberan geratuz gero laguntza hauetan baliatzeko.

Zenbakia	N.A.N. / I.F.Z.	Lortutako puntuazioa	Falta den diru-laguntza
1	28952652E	32,50	3.799,63 euro
2	B01571447	31,50	6.039,96 euro
3	J01571462	31,25	6.208,19 euro
4	72753493P	24,00	2.307,74 euro
5	B01396571	23,00	5.379,00 euro
Guztira			23.734,52 euro

Zortzigarrena. Erabaki hau udalaren webgunean eta ALHAOn argitaratzea.

Bederatzigarrena. Diru-laguntza eskatzaile guztiei ebazpenaren berri ematea, eta orobat jakinaraztea ebazpenaren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsua, ebazpena eman duen organo berari zuzenduta, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik”

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 23an

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI